



NERABEENTZAKO AISIALDI JARDUERETAN EUSKARAREN
ERABILERA SUSTATZEN

**UDALEKUETARAKO ESTRATEGIAK ETA
PROGRAMAZIOAN TXERTATU DAITEZKEEN
JARDUERA PROPOSAMENAK**



2019KO UDALEKUETARAKO PROPOSAMENAK

Ondorengo orrietan haur eta nerabeekin egiten diren udalekuetan euskararen erabilera sustatzeko lagungarriak izan daitezkeen zenbait baliabide aurkezten dira.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bi urtez Mingaina Dantzan udalekuak antolatu zituen. Lehenengoa 2017an egin zen Mundakan eta bigarrena 2018an Berrizen. Udaleku horien helburua 13 eta 14 urteko nerabeen artean euskararen erabilera indartzeko estrategiak garatzea izan zen, eta are gehiago, landutako estrategia horiek beste edozein udalekutan erabili ahal izateko moduan ere aurkeztea.

Ondorengo orrietan Udaleku horiei begira landutako hainbat estrategia eta proposamen aurkezten dira. Proposamenen bilduma bat da eta horiek erabiltzeko irizpideak ere aurkezten dira, baina ez dira erabil daitezkeen estrategia guztiak agertzen eta agertzen direnetako hainbat lehendik ere erabiltzen dira zenbait udalekutan. Horien inguruko argitalpenak ere badaude, besteak beste: “Hezitzaileek asko egin dezakete” (Gipuzkoako Foru Aldundia), “Haur eta gazteen jardueretarako hezitzaileentzat gida” (Arabako Foru Aldundia) eta “Hau jolasa baino gehiago da” (Arabako Foru Aldundia).

Beraz, aurkezten diren ideia eta proposamen batzuk baliagarriak izan daitezke, eta bereziki ikuspegi orokor bat har daitekeela erakutsi nahi da: maila ezberdinetako estrategiak eta jarduerak elkar osagarriak izan daitezke, eta helburuak ondo jartzen badira udalekuak jarduera aproposak izan daitezke haurren eta nerabeen euskararen erabilera eta euskararekin duten harremana indartzeko.

AURKIBIDEA

Oinarrizko estrategiak eta horiek eguneroko egoeretara egokitzea	4
Hizkuntza-erabilera helburua udalekuetan	5
Zertaz ari gara oinarrizko estrategiei buruz hitz egiten dugunean?.....	7
Izan gaitezen Hezitzaile Berritsuak.....	7
Hezitzaile Berritsuen oinarrizko prozedura	8
Oinarrizko estrategiak eguneroko uneetara egokitzea.....	9
Programazioan txertatu daitezkeen jarduerak eta hizkuntza-jolas proposamenak	15
Zer hartu kontuan jarduerak erabiltzerakoan	16
Denbora librerako jarduerak	19
Gaubeletarako jarduerak.....	24
Gynkana eta une zehatzetarako hizkuntza probak/jarduerak	26
Txangogetarako jarduerak	32
Hizkuntza-jolasak	35
Girotzeko jarduerak	41
Eranskinak.....	43



01.

**OINARRIZKO ESTRATEGIAK ETA
HORIEK EGUNEROKO EGOERETARA
EGOKITZEA**

01.

OINARRIZKO ESTRATEGIAK ETA HORIEK EGUNEROKO EGOERETARA EGOKITZEA

HIZKUNTZA-ERABILERA HELBURUA UDALEKUETAN

Udalekuen helburuetako bat euskararen erabilera sustatzea bada, hori helburu zehatzagoetara ekartzea lagungarria da ondoren estrategiak eta jarduera helburu argiago horren arabera aurrera eramateko.

Helburuak zehazterakoan kontuan zizan behar dira parte-hartzaileen ezaugarriak: bereziki jatorria edo ibilbide soziolinguistikoa. Hau da: haur eta nerabe batzuek euskaraz aritzeko erraztasuna eta ohitura dute, baina beste batzuek ez dute erraztasunik udalekuen moduko jarduera informal batean euskaraz eroso aritzeko eta ez dute horrelako egoeretan euskaraz egiteko ohiturarik. Are gehiago, tarteko egoeran dauden parte hartzaileak ere izango dira.

Bestalde, oso argi izan behar da euskararen erabilera sustatzearen ardura hezitzaileena dela. Hau da: udalekuetako antolatzaileek jarri dute helburu hori eta hezitzaileek dute hori lantzeko ardura, eta ondorioz ezin dute haurren edo nerabeen esku ardura hori utzi. Helburuak jartzeko garaian eta estrategiak txertatzeko garaian hori argi izan behar da eta lagundu nahi izatearen ikuspegitik egin behar da lanketa: haurrei eta nerabeei euskara asko erabiltzen lagundu nahi zaie eta euskararekin harreman handia eta indartsua izaten.

Zein izan daiteke udalekuetarako helburu lorgarri eta egoki bat?

Abiapuntuoko egoera	Helburua	Zer begiratu? Nola baloratu?
<p>Gehienek euskaraz egiten digute baina batzuk ez digute beti euskaraz egiten. Elkarrizketa euskarara eramaten saiatzen garenean ere zaila da batzuetan.</p>	<p>Gurekin harremana euskaraz izatea.</p>	<p>Gero eta errazago lortzen dugu gurekin euskaraz egitea? Gero eta gutxiagotan saiatu behar dugu elkarrizketa euskarara eramaten?</p>
<p>Beraien artean batzuek euskaraz egiten dute, baina gehienek erdaraz egiten dute. Egoera antolatu eta bideratuetan ere, gu elkarrizketan sartu arren eta elkarrizketak euskarara eramaten saiatu arren zaila da beraien artean euskaraz egitea.</p>	<p>Egoera antolatuetan gure eraginez (elkarrizketa euskarara eramaten saiatzen garenean) haien artean euskaraz egitea.</p>	<p>Egoera antolatuetan gero eta errazago lortzen dugu elkarrizketak euskarara eramatea? Gutxienez gure eragina aktiboa denean lortzen dugu beraien artean egoera horietan euskaraz egitea?</p>
<p>Gehienek erdararako joera dute. Tarte laburretan euskara mantentzen dute jarduera lagungarriak erabiltzen ditugunean eta modu aktiboan eragiten saiatzen garenean.</p>	<p>Jarduera lagungarriak erabiltzen ditugunean beraien artean euskara mantentzea tarte nahiko luzeetan ere.</p>	<p>Jarduera lagungarriak erabiltzen ditugunean euskara mantentzen dute gure eragina beharrezkoa izan gabe? Edo gure eragina aktiboa denean erraz mantentzen dute?</p>
<p>Gehienek euskaraz egiten dute egoera antolatuetan. Egoera informala goetan erdararako joera nagusitzen da.</p>	<p>Egoera informaletan haien artean euskaraz egitea ohikoa izatea.</p>	<p>Ohikoa da euskaraz aritzea egoera informaletan? Gero eta euskara gehiago erabiltzen dute egoera informaletan?</p>
<p>Euskaraz egiten dute. Egoera informaletan batzuek erdararako joera dute.</p>	<p>Euskaraz egitea denbora tarte luzeetan.</p>	<p>Euskaraz egiten dute denbora tarte luzeetan? Erdara gero eta gutxiago entzuten da?</p>

ZERTAZ ARI GARA OINARRIZKO ESTRATEGIEI BURUZ HITZ EGITEN DUGUNEAN?

Oinarrizko estrategiak dira hezitzaileek nerabean hizkuntza-jokabideekiko hartu beharreko jarrerak, zehazki, Hezitzaile Berritsuak izatea eta horretan ari garenean prozedurak zaintzea eta kontzienteki erabiltzea. Oinarrizko estrategiak dira euskararen erabilera indartzera begirako abiapuntu eta oinarri nagusia.

IZAN GAITEZEN HEZITZAILE BERRITSUAK

Erabilera sustatzea eta hezitzaileen ardura:

Erabilera helburuak guk jarri ditugu eta guk lagundu behar diegu euskara asko

eta gustura erabiltzen. Beraz, ezin dugu besterik gabe ardura haien esku utzi eta kargu hartu euskaraz ari ez badira.

Hezitzaile Berritsu moduan aritu:

Zer da hezitzaile berritsu bat? Elkarrizketa asko sortzen dituen eta bideratzen dituen hezitzaile bat. Bai banakoekin baita taldean ere.

Hizkuntzari dagokionez hezitzaileon jarrerak oso aktiboa izan behar du: elkarrizketa askotan parte hartu behar dugu, elkarrizketa asko sortu behar ditugu, eta abar. Eguneko egoera eta tarte ezberdinak baliatu behar dira horretarako: txangoetan, jatorduetan, atsedeen tartetan, dinamiketan...

Gure jarrera zenbat eta aktiboagoa izan, orduan eta errazagoa haientzat euskara erabiltzea edo euskara mantentzea.

Hau da oinarrizko estrategia eta hau da gutxien-gutxienez hezitzaile taldeak oso argi izan behar duena. Beraz: euskara asko erabiltzen lagundu nahi badiegu, Hezitzaile Berritsuak izan behar dugu.

HEZITZAILE BERRITSUEN OINARRIZKO PROZEDURA

Ahalegina eskatu, lagundu eta errefortzuak eman

Hezitzaile Berritsu moduan ari garenean, beharrezkoa bada, ahalegina eskatu:

- Ahalegina eskatu, edo gutxienez gure nahia adierazi: udaleku hauen helburuetako bat euskararen erabilera sustatzea ere bada, eta euskara asko erabiltzen lagundu nahi diegu.
- Erabilera sustatzearen ardura hezitzailearena da, baina parte-hartzaileei azaldu ahal diegu gure nahia zein den eta euskara erabiltzea nahi genukeela hainbat harreman edo egoeratan.
- Ahalegina eskatzerakoan mezu eta tonu egokia erabili: helburu batera hurbildu nahi dugu eta lagundu egin nahi diegu. Mezua egokitu behar dugu, gainera, testuinguru euskaldun eta erdaldunetatik datozeinei begira: batzuen kasuan laguntza eskatzen diegu nahiz eta erraza ez dela ulertzen dugun, eta besteen kasuan animatu egin nahi ditugu eta gero eta errazago egin dezaketela ikusten lagundu.

- Egoera egokiak erabili ahalegina eskatzeko: hainbatetan, hobeia izan daiteke erdaraz ari badira ahalegina ez eskatzea, eta beste egoera batean, bakarka gaudenean edo behintzat tartea lasaia denean eta patxadaz hitz egin daitekeenean, gaia ateratzea.

Laguntzea izango da beste oinarria: egoera batzuetan euskaraz egitea edo mantentzea kosta egiten bazaie, bereziki tarte horietan jokatu beharko dugu Hezitzaile Berritsu moduan. Tartean sartu eta elkarrizketetan eragin.

Errefortzu positiboak emateko jarrera izan behar dugu. Hezitzaile Berritsu moduan ari bagara eta zailtasunak zein diren ikusten badugu, ez da zaila izango errefortzu positiboak emateko moduak eta egoerak aurkitzea: erraztasun gehiegi ez dutenek ere egiten dutenean, erdarara pasatzea errazena izan daitekeenean euskara mantentzen ahalegintzen direnean, eta abar.

Hau da hezitzaileen aldetik ikusi nahiko genukeen jokabidea. Horretan ari bazarete, proposa izan daiteke beste tresnak erabiltzea. Baina Hezitzaile Berritsu moduan ez bazarete aritzen, beste tresnak ez dira eraginkorrak izango.

OINARRIZKO ESTRATEGIAK EGUNEROKO UNEETARA EGOKITZEA

Oinarrizko prozedura udalekuetan erabiltzeko garaian, kontuan izan behar da egunean zehar une oso ezberdinak ematen direla eta horietan hezitzailearen rola eta eragina ezberdina dela. Hainbat eta hainbat egoera ematen dira: jantokia, hondartza, txangoa, eskulana, sare sozialetara begirako jarduerak, jolas dinamizatuak... Hezitzaile Berritsu jokabidea egoera horietara egokitu daiteke.

Horretarako, ideia hauek hartuko dira kontuan:

- Hezitzaileok modu kontzientean jokatu behar dugu Hezitzaile Berritsu moduan eta egoeraren arabera zehaztutako prozedura zainduz.
- Etengabe horrela aritzea oso zaila denez, ezaugarri ezberdinetako hiru egoera aukeratu ditzakegu. Horietan bereziki jokatu behar dugu modu horretan.
- Egoera horietan horrela aritzen bagara, beste hainbat egoeratan ere egingo dugu modu naturalean.

Egoera formalenetatik ----->Egoera informalenetara					Jarduera dinamizaturik eta espazio itxia -----> Jarduera libre eta espazio erabat irekia			
Eskulan bat	Gaubela dinamizaturik	Sua jolasa	Ginkanak eta jolas dinamizatuak	Jantokia	Denbora libre sare sozialen gelan	Bazkalosteko tarte logela eta patioan	Ibilaldia	Hondartza
Zein da euskararen erabilerari dagokionez aurreikusten dugun egoera?								
Zein da Hezitzaile Berritsu moduan aritzeko prozedura?								

Adibide moduan ezaugarri ezberdinak dituzten hiru egoera aukeratu dira. Horietan zein egoera aurreikusten den eta nola jokatu beharko litzatekeen proposatzen da. Kontuan izan adibide bat besterik ez direla eta udaleku bakoitzaren ezaugarrietara egokitu beharko litzatekeela:

- Eskulanak - Jantokia - Ibilaldia

Eskulanak

Zein dira ezaugarriak?

Leku itxi batean egiten dira. Programatua da. Hezitzaileen presentzia eta eragina handia da: elkarriketetan daude eta taldeko parte dira.

Zein da aurreikusten den hizkuntza-egoera?

Batzuek beraien artean euskaraz egingo dute, baina beste hainbatek erdaraz egiteko joera izango dute.

Joera hau nabarmenagoa izan daiteke udalekuen bigarren tartean (hain arteko harremana finkatuagoa dagoenean).

Hezitzailea tartean sartzen bada eta elkarriketetan modu aktiboan eragiten badu, elkarriketak euskarara bideratzea nahiko erraz lortuko du.

Hezitzaile Berritsu prozedura:

Espazioa antolatzerakoan hezitzaileok argi izango dugu erraz mugitzeko eta presentzia handia izateko moduan jarri behar dugula. Gainera, taldean euskara erraz mantentzen dutenak ere baldin badaude, espazioa antolatzerakoan horiek besteekin nahasian jartzeko ahalegina egingo dugu.

Elkarriketetan eragitea:

Hasieratik elkarriketa batean eta bestean sartuko gara hezitzaileok. Edozein aitzakiarekin taldetxoz aldatu, gauzak galdetu, proposamenak egin eta abar. Gaia aldatu dezakegu nahi badugu. Erdararako joera handiena dutenekin adi ibiliko gara eta eragin handia izaten saiatuko gara.

Ahalegina eskatzea edo gutxienez nahia adieraztea:

Gu elkarriketan gaudenean ere erdaraz jarraitzen badute, ahalegina eskatuko diegu. Tonu atsegina erabiliko dugu: *Aizue! Nik uste nuen zuek euskaraz ere primeran egiten zenutela...* edo hezitzailea eroso sentituz esan ditzakeen beste batzuk.

Errefortzu positiboak ematea:

Errefortzu positiboak ematea oso egokia izan daiteke, baina unean bertan baino egoeraz kanpo behar bada: amaitutakoan norbaitengana hurbildu eta guztia euskaraz egin duelako zein pozik gauden esan, euskaraz erraz egiten duela azpimarratu eta horrek meritua baduela (bereziki etxean euskaraz ez badute egiten), eta abar.

Jantokia

Zein dira ezaugarriak?

Leku itxian egiten da.
Eguneroko egoera bat da.
Hezitzaileek badute presentzia eta eragina, baina mugatua egoera informala delako.

Zein da aurreikusten den hizkuntza-egoera?

Batzuek euskaraz egingo dute baina gehiago izango dira erdaraz egingo dutenak. Hizkuntza-harremanak nahiko hasieran finkatuko dira eta ez da askorik aldatuko udalekuetan zehar. Hezitzaileei jarrera aktiboa hartzen dutenean eragina izango dute, baina tarte nahiko laburretan.

Hezitzaile Berritsu prozedura:

Jantokian gazteak nahi bezala eseriko dira, hor ez dugu esku hartuko.
Hezitzaileok ez gara gazteekin eseriko, baina jarrera aktiboa izango dugu jatorduko hainbat mementotan.
Horretarako, hezitzaileak ez gara jantokiko albo batean egongo: nahiko erdigunean egongo gara eta edozein mahai edo taldetxotara hurbiltzeko erraztasuna izango dugu.

Elkarrizketetan eragitea:

Jatorduetan zehar, zenbait unetan altxa egingo gara eta mahaietara hurbilduko gara elkarrizketak sortuz edo horietan parte hartuz: jardueri buruz galdetu, planei buruz, janariari buruz...

Bereziki erdararako joera handia dutenengana joko dugu, eta euskara mantentzeko erraztasuna dutenak elkarrizketan sartzeko ahalegina egingo dugu.

Ahalegina eskatzea:

Hezitzaileak elkarrizketetan ari garenean gazteren batek hala ere erdaraz jarraitzen badu, ahalegina eskatuko diogu tonua zainduz: modu goxoan euskaraz egitea nahiko genukeela adieraziz.

Beharrezkoa ikusten bada, jantokitik kanpoko egoera batean gazte horrekin/horiekin horretaz hitz egingo dugu. Adibidez: ulertzen dugula erdararako joera izatea, baina modu horretako egoeretan euskaraz egitea nahiko genukeela eta lagunduko diegula.

Ibilaldia

Zein dira ezaugarriak?

Leku irekian izaten da.

Programatua da baina ez da dinamizatua.

Hezitzaileak eragina izango du unean dagoen taldetxoetako kideen artean.

Zein da aurreikusten den hizkuntza-egoera?

Batzuek euskaraz egingo dute baina gehiago izango dira erdaraz egingo dutenak. Hizkuntza-harremanak udalekuen nahiko hasieran finkatuko direnez ez da askorik aldatuko udalekuetan zehar. Hezitzaileei jarrera aktiboa izan arren kosta egingo zaie batzuen artean euskaraz egitea. Jarduera bereziak, bereziki Ahobiziek lotutakoak, lagungarriak izango dira erabilera indartzera begira.

Hezitzaile Berritsu prozedura:

Ibilaldi luzeak eta laburrak izan daitezke: txango bateko ibilaldi bat edo leku batetik bestera joateko tarte labur bat.

Hezitzaileok aurrez erabakiko dugu noiz arituko garen modu kontzientean, eta ez da denbora tarte luzeegia izango: gehienez 30 minutu inguru.

Taldetxoetan sakabanatzea:

- Ibilaldietan hainbat taldetxo egingo dira eta horiek nahastu eta aldatu ere egingo dira hainbat mementotan.
- Hezitzaileok taldetxo horietan sakabanatuko gara eta modu aktiboan eragingo dugu elkarrizketetan.

Elkarrizketetan eragitea:

- Talde bat erdaraz ari bada eta elkarrizketa sartzen bagara, gai berari tiraka elkarrizketa euskarara eramango dugu edo gai berri bat proposatuko dugu.

Ahalegina eskatzea:

- Norbaitek erdaraz jarraitzen badu, "ez entzunarena" egin dezakegu eta berriz euskaraz galdetu.
- Ahalegina eskatzea egokia izan daiteke baina zaila izango da une horretan bertan, egoera oso informala delako. Beraz, hezitzailea eroso sentitzen bada unean bertan ahalegina eskatuko du, baina horrela ez bada, beste tarte batean horrekin/horiekin hitz egingo du eta nahia azalduko die, errefortzuak eman eta abar.

Errefortzuak ematea:

- Euskaraz aritzeko erraztasuna ez dutenei edo erdararako joera handia dutenei ahalegin txikiak ere baloratu eta errefortzuak eman. Euskara erraz mantentzen dutenei ere bai. Errefortzuak unean bertan eman daitezke baina hainbatetan hobea izango da bestelako egoera batzuk bilatzea.

Laguntza lortzea:

- Ibilaldian zehar eragin nahian gabiltzanean, euskara erraz mantentzen dutenen laguntza bilatu dezakegu guk nahi dugun elkarrizketa horietara erakarrit.

Tresna osagarriak erabiltzea:

- Ibilaldian zehar abestiak eta jolasak ere sartu ditzakegu.
- Ahobizi dinamikak egiten diren egunetan eta tarteetan errazagoa izango da Hezitzaile Berritsu moduan aritu eta eragitea.



02.

**PROGRAMAZIOAN TXERTATU
DAITEZKEEN JARDUERA ETA
HIZKUNTZA-JOLAS PROPOSAMENAK**

02.

PROGRAMAZIOAN TXERTATU DAITEZKEEN JARDUERAK ETA HIZKUNTZA-JOLAS PROPOSAMENAK

ZER HARTU KONTUAN JARDUERAK ERABILTZERAKOAN

Ondorengo orrietan aurkezten diren proposamenak Mingaina Dantzan udalekuetako programazioan txertatu izan dira eta beste hainbat udalekutarako ere aproposak izan daitezke. Horietako hainbat oso ohikoak dira aisialdiko jardueretan eta baten bat nahiko berria ere bada.

Jarduera hauetako batzuk erabiltzea erabakiz gero, oso kontuan izan ondorengo puntuak:

Jarduera lagungarriak dira

Jarduera hauek udaleku edo aisialdi jardueretan erabiltzeak ez du esan nahi nerabeek euskaraz egingo dutenik. Jarduera lagungarriak dira, besterik ez. Hezitzaileon jarrera egokia bada, euskararen erabilera indartzeko tresna egokiak izan daitezke.

Hizkuntza erabiltzea ezinbestekoa izan dadila

Jarduera hauen oinarrian ideia bat dago: jarduera egin ahal izateko hizkuntza ahoz erabiltzeak ezinbestekoa izan behar du. Jarduera aurrera eramateko hizkuntza beharrezkoa denez, errazagoa izan daiteke nerabeen elkarrizketak euskarara eramatea edo euskaraz mantentzea.

Hezitzaile Berritsuak izan

Euskararen erabilera sustatzearen ardura hezitzaileona da: guk nahi dugu nerabeek euskara gehiago erabiltzea eta horretan lagundu behar diegu.

Lagundu ahal izateko oinarritzko estrategia hezitzaile berritsuak izatea da: banakoekin elkarrizketa asko sortzen dituztenak eta beraien arteko elkarrizketa askotan parte hartzen duten hezitzaileak.

Jarduera hauek erabiltzerakoan kontuan izan hezitzaile berritsuak izan behar dugula eta euskararen erabileraren benetako egoera hartu abiapuntu:

- Haien artean euskaraz nahiko erraz egiten badute eta batzuetan erdarara jotzen badute, nahikoa izan daiteke jarduerak proposatzea eta tarteka beraiekin aritzea.
- Haien artean euskaraz aritzeko ohiturarik ez badute eta, beharbada euskaraz aritzeko erraztasunik ere ez badute, beharrezkoa izango da jarduera egiten duten bitartean hezitzaile berritsu moduan aritzea eta etengabe gure eraginaren bidez elkarrizketak euskaraz izan daitezen laguntzea.

Jarduerak erabilera helburua lortzen lagun dezake baina erabilera helburua bera eta hezitzaileok hartu beharreko jarrera ezberdina izango da testuinguruaren arabera.

Programazioan txertatu

Jardueraren bat erabili nahi izanez gero, programazioan ondo txertatzea garrantzitsua da:

- Noiz egingo da?
- Nola aurkeztuko zaie?
- Nola egingo da jarraipena eta balorazioa?

Garrantzitsua da programazioan ondo txertatzea nerabeei proposamen erakargarria egiteko eta euskararen erabilerara begira hezitzaileok hartu beharreko jokabidea argi edukitzeko.



**DENBORA LIBRERAKO
JARDUERAK**

SUA

AZALPENA

Karta joko bat da, euskal mitologiako pertsonaietan oinarrituta. Partaide bakoitzari karta bat banatzen zaio eta kontalaria istorio bat kontatzen hasiko da borobileko denek begiak itxita dauzkatela. Pertsonaiak izendatu heinean hauek begiak ireki eta, ezer esan gabe, keinu bidez kontalariarekin zenbait gauza adostuko dituzte. Behin hori egin ondoren, jolasaren helburuak herritarrek inkisidoreak zein diren adostean eta topatzean datza. Bitartean, ordea, pertsonaia ezberdinak hiltzen doaz. Nola bukatuko da?

KONTUAN IZATEKOAK

Garrantzitsua da lehen egunetako denbora libre tartetean parte hartu nahi duten gazteei jolasa aurkeztea eta abian jartzea. Helburua jolasa haientzat erakargarri izatea eta ondorengo egunetan haiek nahi dutenean euren kaxa jolastea litzateke. Ondorioz, partaidetzak bolondresa behar du izan. Udalekuetan harrera oso ona izan duen jarduera da.

BEHAR DEN MATERIALA

Txatxilipurdi elkarteak argitaratutako jolasa da. Karta jokoa eta azalpenak bertara eskaria eginda lortu daitezke:
www.txatxilipurdi.com



PAREKO

AZALPENA

Marrazketan oinarritutako joko da. Minutu bat aurrean daukazun marrazkia besteei azaltzeko. Behin minutua bukatutakoan, puntu ezberdinak banatuko dira marraztu duzun horren ezaugarrien baitan. Nor izango da marrazkilaririk finena? Puntu kopuru handiena lortzen duenak deskribatuko du hurrengo marrazkia.

KONTUAN IZATEKOAK

Garrantzitsua da lehen egunetako denbora libre tartetean parte hartu nahi duten gazteei jolasa aurkeztea eta abian jartzea. Helburua jolasa haientzat erakargarri izatea eta ondorengo egunetan haiek nahi dutenean euren kaxa jolastea litzateke. Ondorioz, partaidetzak bolondresa behar du izan.

BEHAR DEN MATERIALA

Txatxilipurdi elkarteak argitaratutako jolasa da. Karta joko eta azalpenak bertara eskaria eginda lortu daitezke:
www.txatxilipurdi.com



STORY CUBES

AZALPENA

Dado jolasa da. Dadoek irudi ezberdinak dauzkate eta x dado batera botata, ilaran jarri eta irudiak jarraituz istorio bat asmatzean datza.

KONTUAN IZATEKOAK

Garrantzitsua da lehen egunetako denbora libre tartetean parte hartu nahi duten gazteei jolasa aurkeztea eta abian jartzea. Helburua jolasa haientzat erakargarri izatea eta ondorengo egunetan haiek nahi dutenean euren kaxa jolastea litzateke. Ondorioz, partaidetzak bolondresa behar du izan.

Euskara gaitasun mailarengatik, edo dena delakoarengatik, istorioa asmatzea zailegi egiten bazaie, binaka edo taldeka ere jolas liteke.

BEHAR DEN MATERIALA

Jolasa bera edozein jostailu dendatan erraz eskura liteke.



HITZEZ HITZ

AZALPENA

(Password) mahai jolasa da. Gazteak bikoteka jarriko dira eta batek hitz bat daukan karta hartuko du (adibidez: balea) eta denbora mugatu batean, besteari hitz horren inguruko hitzak esan behar dizkio asmatu arte (animalia, itsasoa, ugaztuna, handia, txorrota, isatsa, Pinotxo).

KONTUAN IZATEKOAK

Garrantzitsua da lehen egunetako denbora libre tartetan parte hartu nahi duten gazteei jolasa aurkeztea eta abian jartzea. Helburua jolasa haintzat erakargarri izatea eta ondorengo egunetan haiek nahi dutenean euren kaxa jolastea litzateke. Ondorioz, partaidetzak bolondresa behar du izan.

Nerabeen euskara gaitasun mailaren arabera, egokia litzateke zailtasun maila ezberdinetako kartak sortzea eta taldeari hobekien egokitzen zaizkienekin jolastea.

BEHAR DEN MATERIALA

Asmatu beharreko hitzez osatutako txarteltxoak eta beroiek gordetzeko kaxa edo potea.





**GAUBELETARAKO
JARDUERAK**

ARGI BELTZA

AZALPENA

Espazio irekian egiteko jolasa da: zelai handi batean, basoan edo leku ilun batean behintzat. Pertsona bat geldituko da eta jolasa hasteko «Argi beltza!!!» oihukatuko du. Une horretan partaide guztiek pertsona hori ukitu «Ni... naiz!» esan eta alde egin beharko dute ezkutatzera. Minutu bat kontatzean gelditzen denak esango du «Banoa!» eta dagoen tokitik-asko jota 3 pauso emanaz- ezkutatutako jokalariai identifikatzen hasiko da «Leire, zakarrontziaren ondoan zaude eta kamiseta gorria daukazu!». Hala bada, Leire harrapatua izango da. Inor gehiago identifikatzen ez badu, «Argi beltza!» berriz oihukatu eta harrapatuak izan ez diren denek bueltatu beharko dute gelditzen den horrengana, ukitu eta «Ni...naiz» esanda berriz ezkutatu. Gelditzen den pertsonak txandatik txandara gutxiago kontatu beharko du, hasieran minutu bat, gero 50 segundo, gero 40 eta jokalariai harrapatzen doan heinean hauek ere berari itsatsita lagundu diezaiokete besteak harrapatzen baina gelditutakoak bakarrik egingo du oihu.

KONTUAN IZATEKOAK

Nahi izanez gero, tresnak eskuratzeko proba ezberdinak pasatzea gehitu liteke. Edo tresnak lortzeko saltzaile postua izango duen hezitzailearekin negoziatu beharra...

BEHAR DEN MATERIALA

Espazio egokia edukitzearekin aski da.



**GYNKANA ETA UNE ZEHATZETARAKO
HIZKUNTZA PROBAK/JARDUERAK**

TORLOJU BAKOITZARI BERE ARANDELA

AZALPENA

Proba moduan egiteko pentsatuta dago. Partaideak bikoteka jarriko dira eta batek begiak itxita izango ditu. Eredu baten ezker aldean tamaina ezberdinetako torlojuak jarriko ditugu eta eskuin aldean, berriz, arandelak. Begiak estali gabe dauzkaten bikotekideak eremuaren alde batean egongo dira eta, bertatik, begiak estalita dauzkatenek gidatu beharko dituzte ahoz emandako aginduekin. Lehenik torloju bat hartzen eta ondoren torloju horri dagokion tamainako arandela topatzen. Ea ze taldek lortzen duen torloju gehien!

KONTUAN IZATEKOAK

Denbora mugak ere jar litezke (minutu batean lortzen ez badute, txanda pasa eta beste bikote bati aukera eman...).

Jolasa zaildu nahi izanez gero, aginduak ematen dituztenei erabili ezin duten hitzen bat jar diezaiekegu. Adibidez, argibideak eman baina ezin duzu “aurrera” hitza erabili.

BEHAR DEN MATERIALA

Torlojuak eta arandelak.
Begiak estaltzeko zapiak.

GIZA ESKULTURAK

AZALPENA

Plangintzaren baitako edozein jolasetan txerta litekeen proba da.

Talde ezberdinetan, bakoitzak pertsonen osatutako eskulturak egin beharko ditu baina eskultura irudia zein den ikusi gabe. Hala, taldekide bat besteengandik urrun egongo da puntu zehatz batean eta irudia eskuetan daukala. Taldeko beste pertsona bat aurrera eta atzera ibiliko da marrazkia daukanak emandako azalpenak taldera eramanez eta taldeko zalantza eta galderak marrazkia daukanari eginez. Horrela, irudia osatu artean.

KONTUAN IZATEKOAK

Ahozko azalpenak bakarrik eman litezke eta, beraz, keinurik ezin da egin.

Jokoari beste ukitu bat emateko, marrazkia daukan pertsona hondarretan lurperatua, zuhaitz bati lotuta edo norabait igota egon liteke eta bertatik askatzeko, taldekideei irudi ezberdinak osatzeko aginduak emango dizkie. Irudi bakoitza ongi osatutakoan, taldekidea askatzeko bideak lortuko dituzte (hondarretan lurperatuta badago, bertatik ateratzeko palak, zuhaitzari kateatuta badago, kandaduak askatzeko giltzak...).

BEHAR DEN MATERIALA

Giza eskultura irudiak.

HAU EZ DA NIREA!

AZALPENA

Edozein jolasetan txertatzeko proba bat da, eztabaidan eta negoziazioan oinarritua. Jolas kooperatibo gisa ere planteatu liteke.

Taldea borobilean jarriko da eta hezitzaileak esatean, taldekide guztiek kamiseta edo objektu bat (erlojua, ileko goma....) kendu eta erdira botako dituzte. Ondoren, hasierako tokira bueltatuko dira. Hezitzaileak kamiseta/objektu pila nahasiko du eta 3, 2, 1! esatean bakoitzak pilatik berea ez den bat hartu eta jantzi egingo du (kabitzen bazaio) eta berriz ere borobilean jarriko da bere lehengo lekuan. Orduan hasiko da norberak bere kamiseta/ objektua topatzeko negoziazioa; ezker edo eskuineko kidearekin negoziatu beharko dugu: «utziko didazu zure kamiseta?» «Bai noski!» edo «ez, ez dizut utziko!» «Hau ez da nirea!» Horrela kamiseta/objektu dantza hasiko da norberak berea jantzi arte. Dinamika hau bi/hiru taldek elkarren aurka joka dezakete eta proba bezala ere jarri liteke ahalik eta denbora gutxienean egiteko.

KONTUAN IZATEKOAK

Dinamika hau ginkana baten baitan proba bezala planteatu liteke baina baita beste edozein unetan ere.

Kamisetekin jolastu nahi ez bada, norberari nahi duen objektua uzteko eskatuko zaio (lepoko zapiak, erlojua, bisera...).

BEHAR DEN MATERIALA

Ez da ezer behar.

MC GYVERREN GYNKANA

AZALPENA

Ahozkoan oinarritutako probez osatutako ginkana litzateke eta proba guztiek oinarri bera dute.

Proba bakoitzean hezitzaileak bere aurrean tresna ezberdinak izango ditu eta ezer jakin baino lehen, taldeak horietatik zein 3 aukeratuko dituen erabakiko du (une horretan beraien artean eztabaidatu eta negoziatuko dute). Behin hori erabakitakoan, hezitzaileak zein egoeratan edo zailtasunen aurrean dagoen azalduko die eta, taldeak, aukeratu dituen tresnen bidez irteera egoki/sinesgarri bat asmatu eta kontatu beharko du, nolabait, hezitzailea salbatzeko.

Hezitzaileak erabakiko du irteera hori baliagarria den edo ez. Nahi izanez gero, tresnak eskuratzeko proba ezberdinak pasatzea gehitu liteke.

KONTUAN IZATEKOAK

Nahi izanez gero, tresnak eskuratzeko proba ezberdinak pasatzea gehitu liteke.

Edo tresnak lortzeko saltzaile postua izango duen hezitzailearekin negoziatu beharra...

BEHAR DEN MATERIALA

Hezitzailea “salbatzeko” tresnak, adibidez: txintxetak, jertsea, paperezko musuzapia, guraizeak, eguzkitako betaurrekoak, hortzetako eskuila, espagetiak, soka....

Egoeren txartelak, adibidez: inurritegi handi baten erdian, tarantula plaga bat, krokodiloz betetako ibaia zeharkatu behar, tribu kanibal baten eltzean harrapatuta...

HITZ KATEAK

AZALPENA

Plangintzako uneren batean txertatzeko proba da.

Nerabeak taldeka jarriko ditugu eta talde bakoitzak ibilbide bat burutu behar du edo toki batetik bestera mugitu. Denak ilaran jarriko dira. Lehendabizikoak hitz bat esango du (nahi duena), bigarrena bere aurrean jarriko da hitz horri jarraipena emanez, gero hirugarrena eta horrela ibilbidea osatu artean. Hitz kate adibidea: «hondarra-ramadan-dantza-zakurra-urra-atuna-nagusi-zikina-lñaki-kirten-tentel-telefono...».

KONTUAN IZATEKOAK

Nerabe batzuek zailtasunak izan ditzaketela aurreikusiz gero, talde bakoitzak 3 aldiz hezitzailearen laguntza jasotzeko aukera izan dezakeela adostu, adibidez.

Hitz berriak ere asmatu litezke baina, horretarako, hitzarekin batera definizioa asmatu/eman beharko dute. Adib.: lurra-rada(adar alderantziz)-dadoa-doamiña (joan eta etortzen den miña)-ñaña (janari goxo goxo)-makila...

BEHAR DEN MATERIALA

Ez da materialik behar.



TXANGOETARAKO JARDUERAK

ZURI

AZALPENA

Taldea borobilean eseriko da eta bakoitzari papertxo bat emango zaio. Paper horretan hitz bat agertuko da. Adibidez: zuhaitza. Ezin diote papera elkarri erakutsi, gorde egin behar dute. Jolasa hasteko bati esango diogu: zu hasi! Eta orduan pertsona horrek, kasu honetan zuhaitzarekin zerikusia duen hitz bat botako du: hostoa, gero hurrengoak: enborra, ondorengoak: zainak, ondorengoak: habia... txoriak, fotosintesia, lurra, basoa..... horrela banan-banan. Kontua da borobilean bat edo bik ez dakitela gaia zein den, jaso duten papera zuri zegoelako. Beraz, euren txanda heltzean, entzun dutena oinarritzat hartuta, zerbait bota beharko dute, ea besteen artean “kamufatuta” geratzen diren. Taldeko guztien lana da paper zuria nork jaso duen asmatzea eta horretarako eztabaidatu egin beharko dute.

KONTUAN IZATEKOAK

Dinamika zaildu nahi izanez gero, paper zuri bakarra edo bat baino gehiago banatu litezke.

BEHAR DEN MATERIALA

Hitz bera duten txarteltxoak eta bizpahiru zuri

KORTXOAK DANTZAN

AZALPENA

Hezitzaile taldeak kortxoz betetako ontzi bat izango du. Kortxo bakoitzean hitz bat (agian, hondartza, bihar, gora, utzi, aterkia, ipurdia.,bai...). Gazte taldeari dinamika azalduko diogu esanez, guk noizean behin, abisurik gabe, kortxoak dantzan jarriko ditugula. Hau da, hezitzaileek taldeak osatzerakoan, gazteen artean modu disimulatuan, kortxoak banatuko dituzte... 2, 3, 4... besteekin hitz egitean, gure kortxoan dagoen pareko hitza aipatu bezain laster, kortxoa berari pasako diogu eta horrek, besteekin hizketan jarraitu beharko du kortxoa beste bati pasatzea lortu arte. Kontua da inork ez duela, bada ezpada ere, kortxorik poltsikoan eduki nahiko. Zergatik? Kortxodunentzako batzuetan «sorpresak» iritsiko direlako, batzuetan onak eta besteetan agian ez hain onak...

KONTUAN IZATEKOAK

Zenbait arau jartzea garrantzitsua da, besteak beste:

- Galdera egiten dizunari erantzun egin behar zaio, bestela kortxoa zuretzat da.
- Galdera egin dizuten hizkuntza berean erantzun behar duzu, bestela kortxoa zuretzat da.
- Kortxoak “desagertzea” ekiditeko, kortxoa nori pasa diozun gogoratu beharko duzu (kortxoak desagertuz gero, atzerako bidea egin eta kortxoa nork desagerrarazi duen jakiteko).

BEHAR DEN MATERIALA

Sagardo edo ardo botilen kortxoak, errotuladorea eta pote bat.

Komeni da kortxoak gazteak bata bestearekin egoteko aukera daukaten une lasaietan banatzea, beste jarduera mardulik ez dagoen tarteetan. Adibidez: irteeretan, denbora libre garaian, otorduetan...

Sorpresa adibideak: bolondresen bat ez dakit zertarako ? Kortxodunak!, bi txokolatezko yogurth sobratu dira, ta lauk nahi dituzue, norentzat? Kortxodunentzat!
Aldiro kortxoak eta, beraz, hitzak aldatzen joan.



HIZKUNTZA-JOLASAK

IRENTSI!

AZALPENA

Gazteak 4 taldetan banatuko ditugu. Talde bakoitza jolastokiaren ertz batean jarriko da patinete bat eta bi balde dauzkala eta bertako taldekideak binaka (bat begiak estalita eta bestea ez). Zelaiaren erdian koloretako pilotak botako ditugu (komeni da pisu pixka bat edukitzea, haizeak eraman ez ditzan). Jolasa hastean talde bakoitzeko bikote bana aterako da: begiak estali gabe dauzkana patinetean etzanda eta baldea buruz behera eskuetan daukala eta, begiak estalita dauzkana, patinetean dagoena batera eta bestera eramaten oinetatik helduta, bere instrukzioak jarraituz. Beraien taldeko koloreko pilota bat baldearekin hartu eta taldeko baldean sartu beharko dute. Hori egitean talde bereko beste bikote bati erreleboa emango diote. Ea ze taldek jasotzen dituen bere koloreko pilotak ahalik eta azkarren.

KONTUAN IZATEKOAK

Euskararen erabilera bermatzeko, interesgarria izan liteke jolasaren baitan hainbat arau sartzea eta beraien artean bat euskararen erabilera izatea. Adibidez:

- Beraien kolorekoa ez den pilotaren bat hartuz gero, utzi eta taldeko beste bikote bati emango diote erreleboa
- Ezin da jiratu: aurrera eta atzera bai baina bueltarik ezin da eman. Buelta emanaz gero, bost segundoko penalizazioa egongo da.
- Aginduak uneren batean euskara ez den beste hizkuntzaren batean emanaz gero edo beste bikoteren bat azpian hartuz gero ere, taldera itzuliko dira erreleboa ematera.

BEHAR DEN MATERIALA

Talde bakoitzeko patinete bat, bi balde eta lau kolore ezberdinetako hainbat pilotatxo.

MAITE ZAITUT!

AZALPENA

Taldea zutik eta borobilean jarriko da eta erdian bat geratuko da. Denak elkarri lotuta egongo dira hanken bidez (hanka-hankaren ondoan jarrita). Erdian dagoena norbaiten aurrean jarri eta esango dio:

- Maite zaitut!
- Zergatik?
- (Adibidez) Ile luzea daukazulako!

KONTUAN IZATEKOAK

Borobileko ile luzedun guztiek mugitu egin behar dute tokiz eta erdian dagoenak, berriz, libre geratu den tokietako bat hartuko du beretzat. Erdian lekurik gabe geratu denak, jolasarekin jarraituko du:

- Maite zaitut! Zergatik? ...

Komeni da bakoitzaren lekua x batez markatzea, izan ere, denak borobilean sartu eta erdiko lekua hutsik geratzeko arriskua baitago.

Gazteek hizkuntza ekonomiarantz joko dutenez, jolasa abian jarri baino lehen argi utziko da erabili beharreko hizkuntza errutinak zeintzuk diren.

BEHAR DEN MATERIALA

Ez da ezer behar.

3 LERROAN

AZALPENA

Espazio zabal batean taldea bitan banatuko dugu eta ilaran jarri. Ilara bakoitzeko lehen hiruek kolore bereko zapi/pilota bana izango dute. Parean 9 uztaiez osatutako 3 lerroan panela jarriko dugu, lurrian eta talde bakoitzeko ordezkari bana ere egongo da. Zutabe/ilara bakoitzean, berriz, hitz bat. Adibidez: ilaretan tokiak: komuna, basoa, hondartza eta zutabeetan noiz: atzo, gaur, bihar.

	Gaur	Bihar	Atzo
Komunean	0	0	0
Basoan	0	0	0
Hondartzan	0	0	0

Erreleboka korrika eginez eta zapiak/pilotak behar den lekuan kokatuz, 3 lerroan egiten saiatu beharko dute baina ordezkari batek esandako lekuan jarri beharko dute. Horretarako, beharrezkoa da galdera egitea eta erantzunaren arabera zapi/pilota kokatzea.

Adibidez: *Jon, zertan aritu zera? Atzo egun osoan komunean egon nintzen! Eta orduan lehen ilarako hirugarren zutabeen jarri beharko du zapi/pilota. Behin jarritakoan hurrengoari erreleboa eman eta gauza bera: Jon, zer zabilta? Bihar basora noa perretxiko bila!*

Behin zapi/pilota denak jarrita daudenean, horiek edo ondorengoarenak tokiz aldatzeko: *Jon, zer zabilta? Atzo egun osoan komunean egon nintzen baina gaur hondartzara noa!* Orduan, lehen ilarako hirugarren zutabeko pilota/zapia hartu eta hirugarren ilarako lehen zutabera pasako genuke.

Lerroa osatzean, azken korrikalariak taldera itzuli beharko du eta denek batera taldeko Haka oihua botako dute.

KONTUAN IZATEKOAK

Inork ezingo du keinurik egin eta pilota jartzeko tokia ezingo da hatzarekin markatu.

Erreleboak ematerakoan ere leloak txertatu litezke. Adibidez: erreleboa ematerakoan: “Leire! Hi saiatuko haiz? Bai, noski! “Unai, hi saiatuko haiz? Bai, noski!”

Jolasa zaildu nahi izanez gero, lerroan jarri beharrekoak 3 izan ordez 4 ere izan litezke: 4 lerroan.

BEHAR DEN MATERIALA

Kolore bateko 3 zapi, pilota...
Beste kolore bateko 3 zapi, pilota...
Panela markatzeko uztaiak edo beste zer edo zer.

MERKANTEAK ETA PIRATAK

AZALPENA

Taldeko batzuk piratak izango dira, beste batzuk kaiko erosleak eta besteak, aldiz, merkantzia ezberdinak barruan daramatzaten merkante edo itsasontziak. Itsasontziek alde aurretik zehaztutako ibilbide bat egin beharko dute. Helburua merkanteek euren merkantzia kaiko erosleari saltzea da baina piratak egongo dira bidean... Piratek urezko globoekin jota merkanteak hondoratu ditzakete eta, pirata batek merkante bat jotzen duenean, bere merkantzia hartzeko aukera izango du baldin eta merkantzia non daukan asmatzen badu. Adib.: “Leire, merkantzia sabel aldean gordeta daukazu” edo “Manex, merkantzia besapean gordeta daramazu”. Piratak asmatzen badu, merkantzia beretzat eta merkanteak irteerara itzuli beharko du merkantzia berria kargatzera. Asmatzen ez badu, aurrera jarrai dezake kaira iritsi edo beste pirata batek globoz jota hondoratu arte. Kaira iritsiz gero, bertako erosleekin negoziatu beharko du bere merkantzia ahalik eta garestien saltzeko.

KONTUAN IZATEKOAK

Dinamika hau garatzeko espazioak zabala behar du izan.

BEHAR DEN MATERIALA

Globoak eta ontzirako merkantzia ezberdinak.

PILOTA GORA

AZALPENA

Ohiko A,E,I,O,U jolasa baina hizkuntza errutina batekin. Jolasa egingo dugu eta osatzea lortzen denean, pilotak norbaiti ematen badio, honek korrika joan behar du pareta edo aukeratu dugun lekua ukitzera. Bitartean besteak bizkarrean ematen saiatuko dira (xuabe).

Baina:

U esan eta pilotari azken eman dionak galdera bat egingo dio. Adibidez, hamaiketakoan zer jan duzu?

Korrika doanak erantzun egin behar du. Ez du pareta ukitzeak soilik balio, erantzun ere egin behar du.

KONTUAN IZATEKOAK

Jolasa hasi aurretik korrika joan beharreko tokia aukeratu.

BEHAR DEN MATERIALA

Pilota bat.



GIROTZEKO JARDUERAK

ZALANTZEN KUTXA

AZALPENA

Udalekuetan zehar, nerabeei azalduko zaie toki jakin batean postontzi moduko kaxa bat utziko dela eta, bertan, nahi duenak eta nahi duenean, edozein kezka edo zalantza idatzi eta sartu dezakeela. Berdin da zein gairen inguruko zalantza den.

Postontzia bi bat egunez utziko dugu zalantzez bete dezaten eta, ondoren, gaubela batean postontzia zabalduko da.

Bertan ateratzen diren zalantzak denen artean argituko dira eta eztabaidak sortzeko ere balioko du.

KONTUAN IZATEKOAK

Zalantzen eztabaida modu irekian edo inprobisatuan egin liteke gazteak berritsuak direla ikusiz gero. Egokia litzateke, ordea, hezitzaileek gaubela baino lehen postontzia zabaltzea eta kezken berri izatea, hala, eztabaidak bideratzeko talde ezberdinak pentsa litezke alde zuzenetik edo nerabeen artean banatzeko rolak prestatu eta abar.

Mingaina Dantzari udalekuetan oso jardura arrakastatsua izan da eta nerabeak euskaraz aritu izan dira eztabaidatzen eta kezken argiketari.

BEHAR DEN MATERIALA

Postontzi modura balioko duen kaxa eta egokia litzateke ondoan orritxoak eta boligrafoak uztea.



ERANSKINAK

ERANSKINA I – HITZEZ HITZ (PASSWORD)

KATUA ZUHAITZA KOLUNPIOA	KAMISETA TXERRIA MARGOA
ZALDIA ERLOJUA ELEFANTEA	OTSOA TELEBISTA KULEROAK
HEGAZKINA BUFANDA ZAKURRA	KOTXEA PARKEA BOTILA
ESKUA AULKIA TERMOMETROA	ARKATZA BAINUJANTZIA LOREA
HARTZA IRRATIA ORRAZIA	PLATANOA ZERUA BIBEROIA

TXIMINIA MENDIA BISERA	BALKOIA MELOIA BEGIA
BEHIA ATERKIA SUKALDEA	MAHAIA AUTOBUSA SASKIBALOAIA
LARANJA KARPETA BELARRITAKOA	TIGREA PASTELA ITSASOA
JABOIA BARAKALDO SUA	MARRAZOA MAKARROIA SORGINA
TEILATUA TWITTER ALFONBRA	BELARRA DORDOKA ARGIÑANO

ERANSKINA I – HITZEZ HITZ (PASSWORD)

KOMUNA METROA HUNTZA	LITERA MUSIKA TIRITA
ZUMAIA KREMA GORRIA	TOMATEA PAPERA ISPILUA
SAGARRA GU ANTENA	PRINTZESA IPURDIA LABA
KORTXOA KARAOKEA BALEA	OSTIRALA BIRUSA ARRAUNA
JOAN SURFA GO!AZEN	INSTAGRAM IZOZKIA TALADROA

DENTISTA HAIZEA ENTSALADA	APAIZA TRAKTOREA ORDENAGAILUA
ATEZAINA MAPA BASERRIA	ALTXORRA ARDIA TXISTORRA
IRLA BEROGAILUA RADARRA	ARRAINA GARBITU ZIGORRA
HEZITZAILEAK TITANIC ILARGIA	NEGUA PINTZELA KAKA
TXORIA CHALLENGE SUDURRA	TXINDOKI GILTZA GAZTA

ERANSKINA I – HITZEZ HITZ (PASSWORD)

EIFFEL ITSASONTZIA GOSEA	MEZUA ESKALADA IRUÑA
MATEMATIKA PUZKERRA SUGEA	MUNDUA ESNEA GURAIZEA
EURIA ZU BONBOIA	GUGGENHEIM BASAMORTUA ZORRIA
GAZTELUGATXE OGIA ALDAPA	TARTALO ZARTAGIA HOSTOA
SUMENDIA PINTZA GOXOKIA	TRENA IKURRIÑA HODEIA

URA EZKONTZA MOMIA	TRENTZA FAMATUA IBAIA
ATERKIA ANOETA MOTXILA	EUSKALDUNA BIZARRA GALTZA
ATHLETIC ORRAZIA ZAKARRONTZIA	URDINA LURRIKARA EVEREST
MARRUBIA EROSKI ARMAIRUA	KANPAIA TXINATARRA GOSALDU
AMONA LORITOA NAFARROA	EGUZKIA KONTZERTUA GORILA

ERANSKINA I – HITZEZ HITZ (PASSWORD)

UDAREA TXIRRISTA OHIANA	EZPATA WHATSAPP LO
HORTZA LAPURTU ZARAUZ	MINGAINA ITZIAR TRANBIA
TXIPIROIA MARIJAIA BELARRIA	AQUARIUM GARAJEA TXIMELETA
IBILI MEDIKUA IHAUTERIAK	LIMOIA OLENTZERO ZUBIA
LASTERKETA TXANTXANGORRIA MUXUA	TXIRRINGA GATZA KULEROA

BEGIA ZUGARRAMURDI ZEBRA	IDATZI SAGARDOA ILEA
GASTEIZ ESKIAK BIZKARRA	AHATEA IGOGAILUA OLATUA
DUTXA ARRANTZALEA GAUA	ARTZAINA GREBA DANTZATU
ZORTZI BERTSOLARIA NAPOLITANA	ITSUA EUROA KARAKOLA
ANDEREÑO IZERDITU EGIPTO	SELFIE BOTOIA EUSKALKIA

ERANSKINA II – MC GYBERREN GYNKANARAKO IDEIAK

MC GYVERREN GYNKANARAKO EGOERAK

Krokodiloz betetako erreka gurutzatu behar duzue.

Tribu kanibal baten eltzean harrapatuta zaudete.

Altxorrez betetako piramide bateko gelan harrapatuta zaudete.

Hiru adar dituzten 50 zezenez inguratuta zaudete.

Itsasontzi batean zaudete ozeanoaren erdian eta pozoil hilkorra duten erleek ontzian egin dute erlauntza.

Tsunami bat dator urrutian eta zuek hondartzan zaudete. Inguruan: palmondo bat, surferako taula eta toalla bat, ez dago besterik.

ERANSKINA III – ZURI

MADALENAK	MADALENAK	MADALENAK
MADALENAK	MADALENAK	MADALENAK
MADALENAK	MADALENAK	MADALENAK
MADALENAK	MADALENAK	MADALENAK
MADALENAK	MADALENAK	MADALENAK
MADALENAK	MADALENAK	MADALENAK
MADALENAK	MADALENAK	MADALENAK



ebete
www.ebete.eus



EUSKO JAURLARITZA  **GOBIERNO VASCO**
KULTURA ETA HIZKUNTZA DEPARTAMENTO DE CULTURA
POLITIKA SAILA Y POLITICA LINGÜISTICA

